

PAULIN SOLOZABAL EUSKERAREN URREZKO LANGILLEA

Berri berria dugu Solozabal'dar Paulin idazlearen azken liburua, amabigarrena ain zuzen:

“ARRAITZ (OLERKIAK) - Bilbao 1995”.

Liburu onek 361 orrialde ditu. Gaiak ataletan jarriak dauzka. 616 olerki daude barrenean. Euskera ta Euskalerrria asko ta asko goratzeko egiñak daude. Izadia gai berexia bezala maiz agertzen da, baita zugaitza, mendiak, eta nola ez?, gure baserriak. Euskalnortasuna ta gizonak ats beroakin aipatzen ditu. Gure edestia ez du azten, batez ere azken aldia, anaiarteko erioa. Ortzen agertzen da Lauaxeta, olerkari abertzale, erri opari bezela.

Jaingoikoa goresten ez da nekatzen gure Paulin. Zeru-lur Egillea, danez gain agertzen du.

Itz neurtuak garbi, ugari ta arin ateratzen zaizkio. Erriarentzat ulertzeko errex egiten zaio; goizeko ogi beroa jaten den bezala, maiz irakurriko dituzte, ldatz Deunaren antzera, galerarik gabe.

Gaiñera, esanai aundiko argazkiekin liburua dago apaindua: txistulariak aurre-ra, euskal idazleak, Euskerazaintza osorik eta bukaeran bi erraldoi, Joxe Migel Barandiaran eta Manuel Lekuona, Euskalerrri'ko biotzaren otsak.

Ezin dugu aztu Martin Olazar'en itzaurrea, betiko esku onakin egiña. Ondo aztertzen du liburua berriaren mezua.

Idazlearen lan guzien izenen zerrenda, bukaeran dakar; ain gutxik egiten dute-na eta zoritxarrez beste askok aztutzen.

Omenaldia Mungia'n

Uztaila'ren lenengo egunean, larunbatean, Mungia'n, enparantza nagusian, Paulin Solozabal idazleari, omenaldi bat eskeñi diote, liburu berriaren aitzakiare-kin.

Bost bersolari on onak zeuden omenaldia berotzen: Azpillaga, Lopetegi, Mañukorta, Xabier Amuritz ta Leyre Bilbao, neska Ondarru'tarra.

Pipermiña nasten zutelarik, gure idazlearen trebetasuna goratu zuten. Apaizaren gaiak ondo aztetu zituzten.

Enparantza gizasemez bete betea zegoen; belarriak bersoetan txintxilik jarrita zeuzkaten, den denak barrena lasaitzen.

Ondotik, opari ederrak eskeñi zizkioten: lore xorta zoragarriak ikastolako aurrak, makil liraña aurreneko kristau bataiatuk gaur 51 urteko gizonak, zillarrez-ko azpillak bersolarien ikastolak. Opariak amaitzerakoan dantzaria agertu zitzaion eta idazlearen naia betetzearren erriaren aurrean egin zuen Aurreku bikotea, jauzi egoki ta ikusgarriekin, txistulariak doñuakin laguntzen ziola.

Azkenean, Paulin Solozabal'ek, liburu berria, erriari doai banatu zion. Besazpian liburua zutela, eunka gizaseme joan ziren etxeruntz. Gero anaiarteko bazkaria zegoen, asieran bezalaxe, bukaeran, danen aurretik trikitrixa zijoan baz-terrak alaitzen.

Zorionak, bersolarien ikastolarentzat. Omenaldiaren asmoa ortxen bertan jaio zen, baita sei ilabeteko lana omenaldia antolatzen. Adore betea, lan eder ortan, Asier Lejarreta'k jarri zuen.

Euskera, irabazle atera zen, baita Euskalerrri'ko ats ederra, Bizkai'ko bazter ortan. Euskal kultura sendotzeko bide egokia arkitu zen. Ortzen ikusi genuen eredu bat azitzen joango dena: idazlea aurretik, bersolariak, dantzari ta txistua, erria zora-tzen. Orrela idazten dire Euskalerrri'ko egun yoriak.

Gizon langillea

Oso idazle langille dugula Paulin Solozabal ezin dugu ukatu. 1960'garren urtean, lenengo liburua argitaratzen zuen "USKERIAK" izenekoa. Gaur arte amabi liburu idatzi ditu.

Ementxen agertzen dugu liburu guzien zerrenda:

"USKERIAK"	1960
"URRE-BITSA"	1961
"GIZONETAN"	1969
"GIZADIAN"	1972
"DEIKA"	1974
"ERRI ARNASA"	1977
"EDER MIÑETAN"	1986
"ALDATZ GORA"	1987
"ALDATZ MALKARRETAN TA GERNIKA ERRETAN"	1987
"URRATS"	1991
"ITZA"	1993

Lan geienak olerkiak dire. Ba ditu ere itzlauzko lanak, elizitzaldien kutsua dauka-tenak, adibidez, "ITZA" liburuan, Jainkoari buruz gogoasmaketa asko biltzen ditu.

Gure idazlearentzat, liburutik ederrena azkena da, "ARRAITZ" delakoa. Itsasoa, izarrak, izadia abesten ez da agortzen, "gorostola" ere maiz aipatzen du. Bere jaioterriko mendiak, bereziki "MAXA" delakoa agertzen digu.

Indar aundiko olerkiak dire euskal gudariei eskeñitakoak: Urbasa mendiko erailketak gogoan ditu, baita Gernika'ko erretzea ta Mañaria'ko guda-mutillak. Euskalerrri'ko biotzaren miña darabil. Eredu oiek erriak gogoan ditu. Liburu ori urte-terdiko lana da.

Itzaurrea Martin Olazar'ek egiten dio, indar aundiko begiekin. Bizkai'ko atsa ta garra ortxen entzuten da.

Liburu oietaz gañera, parrokieko eliz-orrietan, AGUR, KARMEK, EUSKERA-ZAINTZA aldizkarietan, noizbeinka idazlan batzuek idazten ditu.

Aspaldi onetan, ia aldiro, erri kutsuzko esaera batzuk eta berriak, EUSKERA-ZAINTZA ALDIZKARIAN argitaratzen ditu. Ortzen arkitzen du euskeraren sena. Entzun bezin aguro idazten ditu papertxoan, aldizkarira eramateko.

Garrantzi aundiko itzaldia

Mungia'ko Billela Dorre kultura etxean, 1994'ko Orrilla'ren 28'an, bein entzun nion itzaldi bat. "Euskera izkuntza Jatorra, Jakintsua ta Ederra", zeukan

izenburua. Lan orrekin aulki berexia irabazi zuen Euskerazaintza delako elkar-tean.

Paulin egun artan, euskeraren zaindari ta aldezlari gartsua bezala agertzen ziztaigun: Euskeraren "APOLOGISTA" bezala zetorkigun. Zerabilkin gaia auxe zen, "EUSKERAREN EGOKITASUNA". Euskera goraiatu nai zigun.

Ara asmo mardulenak: Euskera jatorra ta ederra da. "Dialektoa" deitzen diotenean, barrena lertzen zaio. Ezagutzen dugun izkuntzetatik zarrena dela ondo azpimarratzen du.

Euskeraren berexitasuna ontzaz ematen du. Euskeraren jatortasunik aundiena bere aditza dela erakusten digu. Euskal erri-elertia oso gora jasotzen du, baita gure idazle ezagunenak.

Paulin Solozabal'ek, bere lana ulertzeko giltza, itzaldi onetan ematen digu. Euskeraren edertasuna, danez gain, al den obekiena nai luke abestu. Orixe bera da egiten duna, bere lan guztian, asieratik bukaera arte. Orixe bera da gure erri xearen oitura. Erriarekin bat egiten du ta orrek ematen dio atsegiña. Erritik sortua, erriaren atsa darabilki.

"ARRAITZ" liburu berria, erriko semeak etxera daramakitela ta an irikita, naiko atsegiña artuko dute irakurtzen, bizkaieraz euskeraren zoria.

Nola neurtu idazlearen lan?

Amabi liburu oietan itz asko daude euskeraz ta galdera bat datorkigu burura: Lan orren garra zertan datza? Galdera bera egin genion idazle berberari. Paulino kezkatu rik zegoen asmo orrekin. Gizon apala da ta "Orixe" il aurretik, gizon guztiz argi au ikustera joan zen, eta idatzitako azkeneko olerkiak eraman zizkion erakusteko. Paulino'k galdetu zion: "Zer diozu nere olerkietaz?" "Jainkotxikiak dire oiek", izan zen "Orixe'ren" erantzuna. Eta jarraitu zuen: "Oraingo olerkariak galduak daude, txepelak dire". Gertakizun au maiz aipatzen du Paulin'ek.

Nere ustez, Paulin'en lana aztertze ko beste bide bat artu bear da. Elerti alde tik, jakintsu-mailan ezin dezakegu jarri. Ez da larrain ortan sartzen.

Paulin'en lanari, oso osorik, erri-elertiaren maila egokitzen zaio, eta neurri ortan zer ikusi aundia dauka; erri-alorrean jaiotzen da ta inguru ortan gelditzen zaigu. Erriaren aurrean gure izkuntzaren edertasuna aitortzen du, irule batek subazterrean oialak eskuz eiotzen ditun bezala; garbi, lirain, sendo. Maila orretan bertan sartzen da Paulin'en lana. Erriko oiua erritik jasotzen du zuzen zuzenean eta erriari itzultzen dio berriz. Lan ori atsegin zaiola gure idazleari ikusten da, garbi asko.

Gainera, itzak neurtze ko errextasuna dauka. Esaldiak eiotzen yayoa da. Lan ori egiten atsegin zaio. Bidaltzen duen mezua erriak ulertzen du berealaxe. Orrelako gizonak sortu dute gure erri-literatura aberatsa. Maila onetan dabil lela Paulin Solozabal'aren lana, ikusten da. Neurri ortan langille emankorra dugu, benetan yoria.

Nor dugu idazlea?

Etxebarria delako erri an jaio zen, Azilondo baserrian, 1912'garren urtean.

Ikasketak, Durango, Kastillo-Elejabeitia eta Gazteiz'ko apaizte gian egin zituen. Bergara'n apaiztu zuten 1939'garren urtean. Apaiztu ondotik, Lauzurika'k abade berriei iru motako zinketa eginarazi zien: bat, Euzkadi'k ez dula egitan iraungo; bi, Españi izango dela aberri bakarra; iru, España'ren alde itz egitea.

Araba'ko Basabe erria bidali zuten eta andik Mungia'ra, 1942'garren urtean. Emen, berriz iraun du gaur arte.

Aberriaren zaletasuna errian sortu zitzaion, amabost urte zitula, bere sorterrian "Kazereñoak" ikustearekin. Orduan giroa gaxo gaxorik zegoen Euskalerrria'n.

Euskeraren zaletasuna apaiztegiaren nabaritu zuen lenengo aldiz.

Galdetu nion bein: "Nortzuk dituzu idazle maitenak?". Au zen erantzuna: "EGUZKIZA, IBARGUTXI, LIZARDI, LAUAXETA, TXOMIN AGIRRE, AUGUSTIN ZUBIKARAI, SHANTI ONAINDIA, MARTIN OLAZAR, ANES ARRINDA". Berez talde zabala.

Idazlearen emaitza

Bizitza onen lanari, iru alderdi, ondo zamatuak, ikusten dizkiogu. Bat, euskal apologisten atala egokitzen zaio. Sartu dezakegu, gutxi gora bera, ondo ezagutzen ditugun beste batzuen artean: Gipuzkoa'n Aita Larramendi ta Kardaberaz'ekin; Bizkaia'n, Astarloa'rekin; Naparroa'n, Aita Erroman Beratarra ta Inazio Larramendi'rekin.

Bigarren, erri mailako elertian iturri aberatsa dugu.

Irugarren, gure izkuntzaren bitxiak ugari jasotzen ditu. Bera bezalako asko bear genituzke.

Azkenean, erriak maite dula, esan dezakegu. Errotik asita euskalduna data...

LATXAGA

